

Duinetik adina



IÑAKI MURUA
BERTSOLARIA

Denok ez gara iristen erretiroa gozatzera eta irtenbide zaila dauka, gazterik amaitu nahi ez eta hainbeste gaztetasun behin pilatuko, eta orduan, kito? Hala gertatzen bada, norberari ez ezik Imsersori eta negozio asmoz sai direnei ere min galanta.

Familiaren egoera ezin hobeto ulertuta, adinaren “zama” beregain hartzeko ardura, eskarmentua, gaitasuna, hurbilekoen ezjakintasunak eta neurritz gaineko okupazioak saihestuta... Mauka da hirugarren adinera iristean ezagutu dezakeguna.

Hala ere, bihotzeko zimikoa sentiarazi didana zera da: “Har ezazu aitona nahiz amona bat adopzioan”. Erretiroa hartutako askok kontratatu ditugun aseguru etxeen iragarkia. Bakardadean etsiturik eta ingurukoen beroa falta duten adinekoekin ekintzak eta jardunaldiak gauzatzeko asmozko iragarkia omen, irabazien %1, beste zeregin batzuen artean, horretarako erabiliko dute. (Ez beste hark zioen bezala, jubilatatu gehiegi dagoela eta batidak antolatuko lituzkeela basurdeak bakantzeko egiten diren gisakoak!).

Hauxe da geure zapatetan jarri gabe geuk baino hobeto zer behar dugun argitu nahia, hau. Behin adin batera iristean nire premiak beste inork

ez bezala ezagutzen dituztela, diote. Eta gure bizia inolako “trabarik” gabe egiteko eta buruko minak arintzeko asmoz, geure arbasoak balira bezala, geuk geure burua ere baino hobeto zainduko omen.

Duela ez hainbeste, adineko jendeak ez zuen oporrik ezagutzen, ezta erretirorik jasotzen ere, lanerako bizi ziren! Asteaz zazpi egun lanean aritutako baserritarrak, gorputza ia bi doblean, igandetan lana egitea debekatzen zuten elizako aginduak bete ezinik, baina behiek egunero jaten dutenez, infernua lurrean bizi beste aukerarik gabe...

Edo Jainkoak emandako haur denak ekartzen jardun eta gereziak baino perretxikoak biltzeko postura hobean, gerriko minez oker-oker, hanka hankaren parean pasa ezinik dabilen amona... nork ez du ezagutu?

Eskarmentutik ikasten da benetan eta liburuetatik teoriarik, beraz, gure geuroa geuk antolatuta hobe, eta balizko laguntza eskuzabal hori, nahiago nuke gaurko gazteen etorkizuna –zotina kentzeko moduko hipotekaz josia– argituko duen egitasmoetan inbertitzea. Gazte *mileuristak* gehienak, *Euriborroaren* aldaketan beldurrez eta Gizarte Segurantzak iraungo duen ziurtasunik gabe...etorkizuna! ●

Ideologia bihurtzeraino



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Ikasturtea bukatu aurretik jakin dugu berria: Suediako Gobernuak eskolak digitalizatzeko plana gelditu du. Ezusteko albistea inondik ere, inork gutxi espero baitzuen Suedia bezalako estatu batek galga emanen zionik hezkuntza sistemaren digitalizazioari. Erabakia, gainera, ez dute edozein testuingurutan hartu Stockholmen: eskolak digitalizatzeko plana bizkortu behar zuen Suediak 2023an. Beraz, agudoago eta digitalki joateko aginduaren aurrean, “mantsoago eta ez honela nahitaez” erantzun dute.

Oihartzun handia izan du aferak, eta iri-

tzi askotarikoak sortu ditu hor-hemenka. *Le Monde* egunkariak, adibidez, osasunaren atalean sailkatu du albistea (ez hezkuntzan, ez teknologian). Beste batzuek erresistentzia keinu indartsua ikusi dute espero gabeko mugimenduan: posible da ezinbesteko digitalizazioaren jainkoari aurre egitea; bai eta haren *lasterkraziari* ere.

Ikasgelak pantailaz betetzea hezkuntza sistemen helburu nagusietako bat izan da azken urteotan. Gero eta gehiagok salatzen dutenez, modu akritikoan. Gero eta gehiagok diotenez, ideologia bihurtzeraino. ●